



Gutuna: “Game of hunters”-en lan egin nabiko nuke!

Egoera. Zure herria aukeratu dute telesail ospetsu baten hurrengo denboraldiko atal guztiak bertan grabatzeko. Ekoizleen arabera, toki egokia da Erdi Aroan girotutako telesaila kokatzeko. Hainbat lanetan jarduteko lan-poltsa osatuta dago. Orain, berriz, “Game of hunters”-eko arduradunek herrian bertan hautatu nahi dituzte antzezleak eta figuranteak. Antzezleen ezaugarriak dagokienez, batez ere hauexek aintzat hartuko dituzte: ibilbide artistikoa (antzezle, kantari, dantzari...), ingeles maila, zaldi gainean ibiltzeko trebetasuna...

Telesailean parte hartzeko irrikan zaude, baina ez zara ausartzen *casting*era bakarrik joaten; lagun bat bultzatu nahi duzu elkarrekin joan zaitezten. Horretarako, **eskutiz** bat idatzi behar diozu lagunari.

- **Nork:** zeuk
- **Nori:** zeure lagunari
- **Zer:** laguna parte hartzera bultzatu eta zeuri laguntzeko eskatu; zure gogoak eta interesa adierazi eta arrazoitu.
- **Nola:** posta elektronikoz edo eskutitzez.
- **Aintzat hartzekoak:** zuen gaitasun guztiak (prestakuntza artistikoa, ingeles maila, itxura fisikoa...); esperientzia ederra bizitzeko aukera.

Hitz-kopurua: gutxienez **150** hitz

Herrian abiatuta...



Hollywood-eko izar?

Idazlan laburra

Lagun maitea:

Zer moduz bizi gara aspaldiko? Ziur asko jadanik badakizu “Game of hunters”-eko arduradunek gure herria aukeratu dutela telesail horren hurrengo atalak filmatzeko. Tira, bolo-bolo dabil notizia hori Euskal Herri osoan. Nik aitortu behar dizut sail horren jarraitzaile sutsua naizela aspalditik eta irrikitan nagoela neure burua kasting-ean aurkezteko. Badakizu, ordea, lotsati hutsa naizela eta ni bakarrik nola ausartuko naiz, ba? Nirekin etorriko zinateke?

← Ort.

← Ort.

Lau urte dira telesail hau ematen hasi zirela eta lehenengo egunetik imajinatu dut nire burua pertsonaietako bat bezala. Izan ere, Erdi Aroan girotutako istorio magikoak betidanik izan ditut gogoko. Gainera, badakit zuk ere izugarri maite dituzula zaldiak eta, hain zuzen ere, zaldi gainean ibiltzeko abilezia da kasting-ean eskatzen duten gaitasunetako bat. Ingeles maila handia ere eskatzen dute. Ni ziur nago kapaz garela hizkuntza hori erraz ulertu eta hitz egiteko, izan ere, zenbat pelikula ikusi izan ditugu guk ingelesez, interneten nahiz telebistan? Bestalde, prestakuntza artistikoa dela eta, nahiko aproposak gara gu biok, dantza taldean makina bat urtez ibili izan baikinena elkarrekin. Han hainbat dantza mugimendu egiten ikasi genuen, bai tradizionalak bai modernoak; hortaz, alderdi horretatik ere, ez dugu traba handirik izango.

← Erref./Kohs.

← Ort.

← Ort.

← Ort.

← Erref./Kohs.

Pentsa ezazu, lagun, esperientzia hau dibertigarria baino gehiago izango dela, etorkizunean antzerkiaren munduko atea irekiko baitizkigu. Egia esan, ez zait burutik pasatu handitan aktore izatea, baina batek daki zertan arituko garen hamar urte barru. Ez dezagun aukera paregabe hau alferrik galdu!

Besarkada handi bat,

Aitor



PROBA IDATZIA

IDAZLAN EREDUAK

IDAZLAN
LABURRA (2016ko
2. deialdia-2)

Kalifikazioa: 8

**Aztertzaileen zehaztasunak: +: 1, 2, 3, 5, 6, 11, 15
-: 13**

EGOKITASUNA/EDUKIA: 2,5

Atazan eskatutakoa ondo bete du, baina edukiaren garapena ez da luzea bezain garatua. Esate baterako, azken paragrafoa ez da sinesgarria.

MOLDEA, KOHESIOA ETA KOHERENTZIA: 2

Funtsean, testu argia eta ondo egituratua. Lagun bati zuzendutako gutuna dela kontuan hartuta, erregistro formalegia erabili du zenbait pasartetan.

ZUZENTASUNA: 3,5

Ia ez dago akats gramatikalik. Esaldien egituraketa oso zuzena da. Hizkuntza-sistema zuzentasunez eta egokitasunez erabiltzeko gaitasuna erakusten du.

Hitzen ordena oso naturala eta egokia.

Aipatzekotan, mailegatutako hitz batzuen ortografian egindako akatsak(internet, kasting).